


# AIARALDEA *hemen*



ASIER CASTILLA PIKAZA eta MARI CARMEN DIAZ DE LEZANA: **“Familiako kideak txirrindulariak izatea laguntza ikaragarria da”** 10 or.

TXAKOLIN GEHIGARRIA: **Eskualdeko txakolin ekoizpenari buruzko informazio guztia eskura**



## Erabakitze eskubidea 4.847 herritarren eskura

### AIARALDEA 4

**Eraso matxisten aurkako telefonoa jarri dute martxan**

Otxomaio jaietan jarri du telefonoa abian Aiaraldeko Mugimendu Feministak

### OKONDO 4

**Igerilekuetako tabernaren esleipenean parte hartzeko aukera zabalik**

Maiatzaren 20an agortuko da udaletxean eskaintzak aurkezteko epea

### AIARALDEA 5

**Pausu garrantzitsua udan Markixana eta Basaurbeko araztegiak eraikitze**

Abuztuaren 1ean aurkeztuko dituzte bi azpiegiturak eraikitze esleipena

### ARTZINIEGA 6-7

**Euskarazko hedabideen aldeko elkartasun jaia**

egingo dute larunbatean Norbanako ugari atxikitu dira Aiaraldea hedabidearen aldeko adierazpena

### KIROLA 12

**Euskal Herria-Palestina borrokaldia maiatzaren 26an Amurion**

Eskualdeko hainbat borrokalari arituko dira Bañueta kiroldegian

## NEURRIRA EGINDAKO JAIETARAKO PRODUKTUAK

KAMISETAK, ZAPIAK, ... BEHAR DUZUNA ESKATU ETA LORTUKO DUGU !!!

SERIGRAFIA, BORDATUA, BINILOA, INPRESIO DIGITALA



## G! Graf!k

PRODUKTU PROMOZIONALA  
JANTZI ZERBITZUAK  
MARKA KUDEAKETA!!!

Telleria 2, LAUDIO


94 672 65 43

pro@grafiksarea.com

www.grafiksarea.com

# erreportajea

# Herri txiki, parte hartze handi



Ilarak sortu ziren egunaren hainbat unetan hautetsontzien mahaien aurrean. **Aiaraldea.eus**

Gure Esku Dago plataformaren galdeketak deitutako herritarren %16,86 erakarri du bozka mahaietara, eta guztira 4.847 lagunek eman dute boza. Joera argia izan da eskualdean: partaidetza areagotu da herri txikienetan eta alderantzizkoa jazo da handienetan. Hau da, herria ahalik eta txikien izan, orduan eta gehiago animatu da jendea galdeketan parte hartzera.



Testua **Aitor Aspuru Saez**

Gure Esku Dago egun osoko jarduera izan du igandean Aiaraldeko 6 herritan hurrengo galdera erantzuteko: "Nahi duzu gure geroa erabakitze eskubidea erabili, muga bakarra Euskal Herriko herritarren borondate aske eta demokratikoa izanik?". Horrela, Amurrio, Okondo, Aiara, Artziniega, Lauadio eta Arakaldon deitutako herritarren %16,86k eman du bozka, 4.847k, hain zuzen.

## Lan hurbilaren ondorioak

Balorazioa anitza izan daiteke, baina nabaria da plebisituak arrakasta gehiago izan duela herri txikietan. Han jasotako bozka kopurua nabar-

men handiagoa izan da udalerrri nagusiekin alderatuta. Bixia da herri horietan galdeketa girotzeko ekintza publikoak oso urriak izan direla.

Hala ere, herri txikietan plataformako kideen lana oso ikusgarria ez izan arren, etengabekoa eta oso gertukoa izan da. Horrela, emaitza on horien gakoak etxetik etxera atez ateko lanean egon da; errazagoa izan da bozkatzeko gogoak kutsatzea eta partaidetza sustatzea baserriak eta etxeak bisitatuta.

Okondon mahai bakarra jarri dute eta herritarren %27,41ek eman du bere iritzia. Arakaldon %25,60koa izan da partaidetza.

Txikitasunaren balioaren isla izan da Aiara. Arespalditzan eta Lantenon -eta inguru-

ko Administrazio Batzarretan auzokide batzuek eman die galdeketaren berri besteei eta egitasmoaren nondik norakoak hobeto azaldu ez ezik, hurbiltasuna ere bultzatu dute.

Luiaondok, aldiz, udalerrri bera izan arren, bestelako ezaugarriak ditu; azken urteotan jende andana joan da hara eraikuntza berriko etxebizitzetara, eta herri izaera ez dago hain ehunduta.

Horren guztiaren harreman zuzena azaleratu da zenbaitan; Luiaondok Aiarako herritarren %50 biltzen badu ere, 105 boza besterik ez ditu jaso bere mahaian. Ordea, Lantenon 103 boto-txartel izan dituzte eta Arespalditzan 241.

## Baiezkoa nagusi

Aurreikusitako bezala, boto-txar-

**4.847 lagunek hartu dute parte galdeketan, botoa ematera deituak zeuden herritarren %16,86a**

tel ia orok baiezkoa adierazi dute galderaren aurrean. Izan ere, lotesle edo legezkoak ez diren galdeketa gehienetan bozkatea plebisitua bera babeslea da. Nekez egituratzen da aurkako iritzia boto-txartelen bitartez. Berez, kontraktasuna edo ezaxola galdeketan parte hartzeari uko egin da islatzen da.

## Mobilizatu ez diren sektoreak

Partaidetza, oro har, aintzat hartzeko izan bada ere -gorabeherekin, hori bai- galdeketaren ondorioa argi da: ustez Euskal Herriko burujabetzaren alde dauden sektore politikoak ez dira mobilizatu.

Nola ez, zaila da ziurtatzea indar abertzaleak bozkatzeko dituztenak independentistak direnik kasu guztietan, bestelako kalkulak ere badaudelako hauteskun-

detan (botoaren eraginkortasuna, adibidez), baina, argi eta garbi, boto emaile abertzale ugari ez dira igaro bozkatzeko prestatu diren mahaizatetik.

Laudioko udalerrria, adibidez, horren adibide nabarmenena da: EH Bilduk 2.902 boto eskuratu zituen 2015eko udal hauteskundetan eta EAJk 2.443 bereganatu zituen. Bien artean bozkatzaileen %37,38 mobilizatu zuten. Gogoratu beharra dago igandeko deialdian, gainera, 16 urtetik gorakoek parte hartzeko aukera zutela, ez soilik 18 urteak gainditu dituztenek.

Hala eta guztiz ere, Audioko mahaiek eroldaren %14,65 besterik ez dute jaso, 2.328 txartel guztira. EH Bilduk edo EAJk, bere kabuz bakarrik (batu gabe), udal hauteskundeetan boza gehiago izan zituzten. Arabako herri handienean gertatutakoa muturreko adibidea izan da, baina, oro har, antzeko egoera errepikatu da eskualdeko leku guztietan.

#### Hurrengo urratsaren zain

Aiaraldean egindako herrigaldeketen ibilbideari erreparatuta, pentsa liteke plebisizituen fenomeno apur bat agortu dela, agian hurrengo urratsa zein den ez dagoelako argi eta horrek jendea mobilizatzea zailtzen duelako. Finean, emaitzak ikusita, ematen du askok uste dutela alferrikako ariketa dela. Dozenaka kontsulta egin eta gero, ez dirudi galdeketa loteslea gauzatuko denik; legezkoa edo legez kanpoko izan (Katalunian bezala).

Tentsio falta hori sumatzen da giroan, eta estatuaren erantzun eza ere adierazlea da. Gogoratu beharra dago Espainiako Gobernu Ordezkarari Javier de Andrések mehatxu publikoa egin zuela Audioko Jainen inguruko kontsulta zela eta. Azken honetan, Gobernu Ordezkararen trabak burokratikoagoak izan dira. Udalei agindu die bitartekorik ez uzteko Gure Esku Dago plataformari. Baina igandeko galdeketa jaien datei buruzkoak baino

boto emaile gehiago izan ditu -heldabide orokorretan gutxiago agertu bada ere-.

Hala ere, denbora pasa ahala eta helburu jakinen faltan, Gure Esku Dagoren galdeketen emaitzak gero eta eskasagoak izan dira Aiaraldean. 2014an Arrankudiaga-Zollo aitzindaria izan zen eta deitutakoen %61,59 mugiarazi zuen. Baiezkoa %89,64koa izan zen. Orozkon, iaz, %44,7ko parte hartzea izan zuten eta langa nahiko jaitsi da aurrean.

#### Ariketa politikoa

Edonola ere, kontuan hartu beharra dago burujabetasunaren eta erabakitze eskubidearen bidea ez dela xamurra, ezta motza ere. Herritarrak ahalduz zuten bidean egiten den lan oro ez da ezer ezean gelditzen, Kataluniak, neurri batean, erakutsi bezala.

Anarkistek XX. mende hasieran "gimnasia iraultzailea" deitzen zioten ekintza zuzenari. Francoren estatu kolpea heldu zenean, Gobernu indarrak baino efektiboak izan ziren anarkistak militar faxisten helburuak gelditzeko eta horregatik 1936ko uztailaren 18an ez zuen garaipena lortu diktadoreak.

XXI. mendeko Euskal Herrian erabakitze eskubidearen kontzeptua esanahiez bete beharra dago. Frackingaren aurkako herri ekimen legegilea eredu oso ona da, eta galdeketa ere ariketa oso proposak. Agian, "gimnasia" gehiago egiteko premia dugu, gure abdominalak ez baitaude oraindik lehiaketa batean erakusteko moduan, baina lantzen ez baditugu, egun batek bestera ez da helduko lurralde-tasunaren edota beste hainbat gairen inguruan erabakitze ordua.

Azken hilabeteetan ehunka pertsonen lan egin dute galdeketa aurrera egiteko. Ehunka boluntariok lortu dute milaka boto emaile etxeetatik ateratzea. Eta hau ez da bukatu. Ez ahaztu: hurrengo hitzordua ekainaren 10eko giza katea izango da.



Eskualdeko sei udalerritan egin dute galdeketa. [Aiaraldea.eus](http://Aiaraldea.eus)

## EMAITZAK HERRIZ-HERRI

### ARAKALDO

\*Parte hartzea: %25,60 (32 boto)  
\*Baiezkoak: 32

### OKONDO

\*Parte hartzea: %27,41 (264 boto),  
\*Baiezkoak: 257  
\*Ezezkoak: 5  
\*Zuriak: 2

### ARTZINIEGA

\*Parte hartzea: %19,53 (289 boto)  
\*Baiezkoak: 274  
\*Ezezkoak: 3  
\*Baliogabeak: 1  
\*Zuriak: 11

### AIARA

\*Parte hartzea: %18,84 (449 boto)  
\*Baiezkoak: 428  
\*Ezezkoak: 5  
\*Zuriak: 14  
\*Baliogabeak: 2

### AMURRIO

\*Parte hartzea: %17,01 (1.485 boto)  
\*Baiezkoak: 1.442  
\*Ezezkoak: 20  
\*Zuriak: 13  
\*Baliogabeak: 10

### LAUDIO

\*Parte hartzea: %14,65 (2.328 boto)  
\*Baiezkoak: 2.275  
\*Ezezkoak: 32  
\*Zuriak: 14  
\*Baliogabeak: 7

**USHUAIA** Dionisio Aldama, 20  
(Geltokiaren aurrean) AMURRIO  
Tel. 945 89 08 41

Asteartetik ostiralera: 9:30/19:00 (EGUERDIAN ERE ZABALIK) Larunbatetan: 9:00/14:00

ILEAPAINDEGI MISTOA · EDERTASUNA · LURRINDEGIA · OSAGARRIAK

**ALISATZE BRASILDARRA**  
Formolik gabeko alisatze iraunkorra  
kalitatezko kosmetika naturalarekin.  
Zortzi asteko iraunaldia.

**HITZORDUA HARTZEKO:**  
**945 89 08 41**

Behin-betiko depilazioa · Sauna · Solariuma

Ushuaia Peluqueria & Estética/Perfumaria

 **YANDIOLA**  
HORTZ KLINIKA LAUDIO

*1945. urtetik Laudion zurekin*

Karmen Kalea 13, behea  
LAUDIO (Araba)  
946 72 31 00

 PADI PROGRAMA  
 INPLANTEAK  
 3D ERRADIOGRAFIKAK

# herriz herri

## Okondo

### Igerilekuetako taberna esleituko du udalak



Maiatzaren zora arte egongo da eskaintzak aurkezteko epea. **Okondoko Udala**

Testua  
**Aitor Aspuru Saez**

Okondoko Udalak jakinarazi du udan igerilekuetako taberna kudeatzeko asmoa dutenek aukera izango dutela esleipenean parte hartzeko. Alokairurako gutxienezko prezioa 500 eurokoa izango da.

Maiatzaren 20an agortuko da eskaintzak aurkezteko epea. Irabazleak derrigorrez kontratatu beharko du erantzukizun-asegurua eta Gizarte Segurantzak ezartzen dituen lege baldintzak bete beharko ditu lan, segurtasun eta higie alorretan. Uda bukatuta, esleipena luzatzeko parada egongo da.

## Amurrio

### Udala eta osasun zentroa elkarlanean, ariketa fisikoa sustatzea helburu



Udaletxean aurkeztu zuten programa. **Amurrioko Udala**

Testua  
**Txabi Alvarado Bañares**

“Mugiment” programa aurkeztu dute Amurrioko Udalak, Osasun Zentroak eta Eusko Jaurlaritzak. Herritarren bizitzetan ariketa fisikoa txertatzea da egitasmoaren xedea. Elkarlanean arituko dira horretarako Osasun Zentroko eta udaleko gizarte ongizate zerbitzuetako langileak. Ariketa fisikoaren beharra izan dezaketen herritarrek identifikatu eta aholkularitza zerbitzua eskainiko diete.

Unai Arrieta arduratuko da zerbitzu hori eskaintzeaz. Pertsona bakoitzari hobekien datorkion kirola gomendatuko dio, jarduerari hori egiteko udalerrian dauden

azpiegituren gaineko informazioa ematearekin batera.

#### Kultur Etxean, astean bitan

Tokiko Erakundeak jakinarazi du pertsona nagusiekin lan egingo dutela batez ere, baina nabarmendu dute egitasmoa “edonori” zabalik dagoela. Maiatzaren 7tik aurrera Kultur Etxean egongo da Arrieta, ostegunetan 16:00etatik 18:00ak arte eta ostiraletan 11:00etatik 13:00ak arte. Interesdunek aurretik eskatu beharko dute hitzordua 619 411 732 telefono zenbakira deituta.

EAE osoan zabalitzen ari dira “Mugiment” programa. Momentuz 15 udalerritan jarri dute martxan eta Amurrio da Arabako lehena.

### 81 musika talde aurkeztu dira Amurriock lehiaketara

Bukatu da Amurriock lehiaketan parte hartzeko aukera. Guztira, 81 taldek eman dute izena. “Lehenengo aldia izanik horrelako zerbait antolatzen dugula, izugarri pozten gaitu hainbeste talde aurkeztu izanak”, adierazi du Egoitz Palacios Burubioko kideak. Dena den, partaideen artean Euskal Herritik kanpokoak ere badirela azaldu du: Logroño, Madril, Valentzia edota Bartzelonakoak, besteak beste. Garrantzitsua iruditzen zaio Palacios hori: “Horrek esan nahi du Burubio elkarte bertan ezagutzen dela edo ezagutuko dela”.

#### Sailkapen fasea

Aste honetan erabakiko dute finalerdietako taldeen hautaketa. Ez da lan erraza izango, Burubioko aburuz. “Gauza pilo baloratu behar dira, eta lan hau burubiokideen artean egiten ari gara”. Maiatzaren 18tik aurrera astebururo egingo dituzte finalerdietako kontzertuak, Burubio elkarte oholtzan. Modu horretan erabakiko da ekainaren 15eko finalean joko duen laukotea.

## Urduña

### Etxeko animaliak jaso eta artatzeko akordioa onartu dute

Testua  
**Izar Mendiguren Cosgaya**

Etxe-abereak biltzeagatik herritarren zerga eguneratu du Urduñako Udala. Izan ere, abenduan zenbait txakur abandonatu zituzten Urduñan. Indar-Araba elkarteak jaso zituen animalia horiek, adopzioak kudeatzeko. Musutruk egin zuen orduan; baina beharri erantzuteko hitzarmena sinatzea erabaki zuten apirilko udalbatzan.

Funtsean, txakurrak edo katuak biltzeagatik ordaindu beharreko zenbatekoa da zehaztu dutena. Hala, udalak 7 euro ordaindu beharko ditu eguneko etxe-abereak bil-

du eta zaintzeagatik, zentror mugitzen ez dituzten kasuetan. Txarkurtegiatara garraiatzeak 57€ balioko ditu, eta batzeak eta zaintzeak 64€.

Abereak txipa duenean 19€ kobratuko ditu eguneko elkarteak, animalia jabeari itzuli arte; eta parasitoen kontrako tratamendua 32 euroren truke eskainiko dute.

Aldiz, txakurrak txipik ez baina jabea baldin badu 8 euro ordaindu beharko ditu erantzuleak eguneko animalia eskuratu arte. Kasu horietan albatariaren azterketak eta parasitoen kontrako tratamenduak 64 euroko kostua izango du, eta txertoa jartzeak 57 eurokoa.

### Eraso matxisten aurkako telefonoa jarri dute abian

Urduñako Foru plaza aukeratu zuen Aiaraldeko Mugimendu Feministak jaiei begira garatuko duten kanpaina aurkezteko. “Jaiak, kaleak eta plazak gureak dira!” lemapean, aurreneko ekintza egin zuten Otxomaio jaietan.

Horrez gain, 24 orduz telefono zenbakia jarri dute eskura eraso matxistak salatzen. Modu horretan, emakumeen babes sarea eratu dute, eta jarrera matxistei aurre egiteko konpromisoa berretsi. Hau da erasoak salatzen telefono zenbakia: 688745180.

elkarlan asesores



2017  
ERRENTA  
AITORPENNA

Autonomo zein partikularren errenta aitortpena aztertu, egin eta bidaltzen dugu.

Hitzordua eskatzeko:

[www.elkarlan.eu](http://www.elkarlan.eu)

Lamuza, 12 · LAUDIO  
Tel. 94 672 74 28

Foru Kalea, 2 · AMURRIO  
Tel. 945 39 33 51

Torre de Ugao, 12. UGAO  
Tel. 94 603 91 65

## Aiaraldea

## Abuztuaren 1ean argitaratuko dute Markixana eta Basaurbeko araztegiak eraikitzeke esleipena

Testua  
**Txabi Alvarado Bañares**

Espainiako Gobernuak Ingurumen Ministerioak publiko egin du abuztuaren 1ean argitaratuko duela esleipena Markixana eta Basaurbeko araztegiak eraikitzeke. Erakunde publikoaren aurreikuspena da 34.414.749,21 euro inbertitzea azpiegitura hori eraikitzeke eta lanak 36 hilabetetan gauzatea.

Obrek azpiegitura ugari sortuko dute. Izan ere, kolektore sarea ere egin beharko dute, bi sistemek osatua. Basaurbe Sistemak Laudio eta Orozkoko isurketak jasoko



Iazko udan hainbat arrain agertu ziren hilik Nerbioi ibaian. Aiaraldea.eus

ditu bertatik araztegiak eramateko. Basaurbe Sistemak, ordea, Amurrio, Murga eta Luiaondoko

uren tratamendua bideratzeko balioko du, Ministeriotik jakinarazi dutenez.

## Koakzio-gutunak bidali dizkie Tubacexeko zuzendaritzak langileei

Testua  
**Txabi Alvarado Bañares**

Gutuna bidali die Tubacexeko operazio zuzendaria den Celestino Danisek Laudio eta Amurrioren dituen fabriketako langileei. ELA, CCOO eta Independenteeekin adostutako akordioaren defentsa egin du Danisek, eta azpimarratu du Laudio eta Amurrioko langileenak direla Tubacex taldeko soldatarik altuenak.

Aipatu beharra dago Danisek dioena ez dela egia, soldata altuenak enpresaren zuzendaritzako kideek jasotzen baitituzte. Jesus Esmorisek, adibidez, 462.000 euro

jaso zituen iaz, administrazio-kontseiluko kide izate hutsagatik.

Zentzu horretan, zuzendaritzako kideek adierazi dute ez direla batere justifikagarriak LAB, USO eta STATEk deitutako 24 orduko hiru lanuzteak. Celestino Danisek ziurtatu du greben jarraipena txikia izan dela, "langileen %24k egin du bat deialdiarekin, batzaz beste". Hala ere, operazio zuzendariak aitortu du lanuzteek eragina izan dutela lantegien ohiko funtzionamenduan. "Ezgonkortasun egoera" medio, Laudio eta Amurrioko lantegietan aurrekusiak zituzten inbertsioak gelditu dituztela gogorarazi du Danisek.

## 20.000 lagun igaro dira parke linealeko pasabide berrietik

20.000 herritar baino gehiagok erabili dute orain arte Nerbioiko Parke Linealean dagoen pasabidea. Egunero 326 lagun igarotzen dira pasabide horretatik, Arabako Foru Aldundiak eginiko kalkuluen arabera.

Zubiak 67 metroko luzera du eta Laudio eta Amurriko artean kokatua dago. Nerbioiko Parke Linealak, aldiz, 10,5 kilometroko luzera du, eta herri batetik bestera oinez zein bizikletaz modu seguru batean joateko balio du. 163.900 euroko inbertsioa egin du aldundiak azpiegituran.

## Laudio

## Planto egon diote Laudio Institutuko ikasleek errebalida azterketari

Testua  
**Aitor Aspuru Saez**

Laudio Institutuko DBH 4. mailako ikasleek plantoa antolatu zuten atzo Heziberriko hezkuntza programako errebalida ez egiteko. Deialdia arrakastatsua izan zen, hiru gazte soilik agertu baitziren azterketa gelan.

Ikasleek aipatu dute errebalida azterketa zabaltzeko prozedura ez dela bat ere gardena izan, eta institutuko zuzendaritzak ez diela data jakinarazi,

euren kabuz lortu baitute informazioa.

Ikasle eragileetako kideek uste dute Eusko Jaurlaritzaren Heziberri planak sustatzen dituen errebalida azterketak LOMCE legeari daudela lotuta zuzenean, eta horregatik antolatu dituzte aurkako mobilizazioak eta dinamikak.

Eskualdean iaz hasi ziren protestekin eta errebaliden aurkakoak ez ezik, PISA azterketen kontrakoak ere egin dituzte, apirillean.



1a ikasle guztiak egin zioten planto azterketari. Aiaraldea.eus

## Orozkoko

## Udaleku irekiak antolatzeko proiektuen lehiaketa abian

Testua  
**Txabi Alvarado Bañares**

Udaleku irekiak antolatzeko proiektuen lehiaketa abiatu du Orozkoko Udalak. Uztailaren 2tik 13ra izango dira udaleku horiek. Ideiak aurkezteko epea, aldiz,

maiatzaren 18an amaituko da. Langabezian daude pertsonen artean ekintzaitza sustatzea izango da lehiaketaren xedeetako bat. 94 633 99 45 telefono zenbakian edo infoinduma@yahoo.es helbide elektronikoaren bidez lortu daiteke informazio gehiago.

**TXUKUN**  
estilistak

**Estetika** 945 38 44 20  
Ekitaldietarako makillajea · Ezkongaietarako makillajea  
Gorputz eta aurpegirako tratamendu pertsonalizatuak  
Presoterapia · Egur-terapia · Masaje linfatikoak · Solariuma

**Ileapandegia** 945 38 42 61

Gernika Plaza, 2 48460 Urduña  
txukunestilistak@gmail.com

Txukun Estilistak

**EZ UTZI DENBORA PASATZEN...**

**DOAKO  
AUDIFONO  
PROBA**

**KONPROMISORIK  
GABE**

**PUNTAKO  
TEKNOLOGIA  
ENTZUMEN  
GAILUETAN**



**LUYANDO  
ENTZUMEN  
ZENTROA**

Elexondo, 1. Amurrio  
T. 945 892 422

Pío XII, 3. Laudio  
T. 944 042 286

Barria Kalea, 5. Urduña  
T. 945 384 499

ENTZUMEN  
ZENTRO  
OFIZIALA **WIDEX**  
DEFINIZIO ALTUKO AUDIFONOEN

# erreportajea

“Artziniegan euskaraz bizi nahi dugu! Euskarazko hedabideak babestu eta sustatu” lemapean manifestua aurkeztu dute zenbait herritarrek. Euskararen normalizazioa lehentasuntzat hartzea eta baliabide ekonomikoak areagotzea eskatu diote udalari. Elkartasun jaia egingo dute maiatzaren 12an, Aiaraldea hedabidearen alde.

## Euskaraz bizi nahi dutela aldarrikatuko dute larunbatean Artziniegan

Testua  
Izar Mendiguren Cosgaya

Euskarazko proiektu eta hedabideen aldeko dinamikak aurrera darrai Artziniegan. Apirilko udalbatzan erabaki zuen EAJk Aiaraldea Hedabidearekin 7 urtez izan duen hitzarmena etetea. Aurrekontuak onartzeko hori izan zen PPK jarri zion baldintza bakarra. Egoeraren aurrean Artziniegako elkarte ugari elkartasun jaia egingo dute maiatzaren 12an.

Hainbat eremutako herritarrek, aldiz, adierazpena osatu dute euskarazko hedabideak babestu eta Udalari hizkuntzaren normalizazioari baliabide ekonomiko gehiago bideratzea eskatzeko. Sinatzaileen artean daude Xabier Santxotena, Paki Ofizialdegi, Ramon Rey, Valentxu Campos eta Mateo Lafragua, besteak beste.

### Manifestuaren muina

Euskararen ezagutza datuen arabera, 2 urtetik gorako biztanleen herena da euskalduna Artziniegan. Duela 25 urte ez zen %10 besterik. Euskarakegindako aurrerapausoak herritarren eta eragile lanaren isla direla nabarmendu dute adierazpenean, “nahiz eta oraindik ere lan handia falta ezagutza datuek erabilerara jauzi egin dezaten”. Horregatik, beharrezkotzat jo dituzte euskara bultzatzeko tresnak eta arnaguneak Artziniegan. Zentzu horretan, udalari euskararen sustapena lehentasunen artean kokatzea eskatu diote ere, balibide ekonomiko gehiago bideratzea hizkuntzaren normalizaziora. Izan ere, aurrean, inoiz baino diru gutxiago inbertituko du tokiko erakundeak euskara arloan, 1.8 milioi eurotik 7.175€ baino ez, %0.39.

Haatik, Aiaraldea hedabideak Artziniegan eta euskararen normalizazioan duen garrantzia eta eraginkortasuna aitortu dute adierazpenean. Udalari dagokionez, euskara lehia politiko eta alderdikoietatik kanpo uztea eskatu dute; truke txanpona ez izatea, alegia. Ildo horretatik, komunikabidearekiko elkarlan

eta finantzaketa hitzarmena 2019an berrezartzea eskatu diete arduradun politikoei, “artziniegarrok euskaraz bizitzen, informatzen eta komunikatzen jarraitzeko aukera izan dezagun”.

**Hainbat herritarrek sinatu dute adierazpena euskarazko hedabideak babestu eta udalari hizkuntzaren normalizaziora baliabide gehiago bideratzea eskatzeko**

Udalan ordezkaritza politikoa duten alderdi guztiei helaraziko diete eskaera, neurriak hartu ditzaten. Azkenik, datorren maiatzaren 12rako antolatu duten elkartasun jaiaren parte hartzeko deia luzatu diete artziniegarrei.



Euskarazko hedabideak babesteko dinamika abiatu dute Artziniegan. Aiaraldea.eus

**Elkartasun jaia larunbatean**  
Larunbat honetan -maiatzak 12- egingo dute Aiaraldea hedabideari babesa adierazteko Elkartasun Eguna, “Artziniegan euskaraz bizi nahi dugu! Euskarazko hedabideak babestu eta sustatu” lemapean. Herriko frontoia izango da jaiaren epizentroa.

Herritarrek eta elkarteek elkar-

**Herriko hainbat elkarteren artean osatu dute egitaraua**

lanean prestatu dute egitaraua, eta egun osoan zehar bildutako dirua komunikabideari emango diote. Horrez gain, Udalari euskara eta hizkuntzaren normalizazioa lehentasunezkoa izatea eskatuko diote, baita hedabidearen diru-laguntza ahal bezain pronto berrezartzeko konpromisoa hartzea ere.

### ATXIKIMENDUETAKO BATZUK Bideo-elkarrizketak Aiaraldea.eus atarian ikusgai



**Xabier Vellé**

Artziniega Rock elkartearen kidea

*“Tristura sortzen didate horrelako erabaki politikoek”*



**Anakristi Gutierrez-Barkin**

Euskaldun berria

*“Euskararekin harremana mantentzeko tresna bakarra da Aiaraldea”*



**Valentin Campo**

Aiarako T.E-ko kidea

*“Garrantzitsua da Artziniegan euskara sustatzen jarraitzea”*



**Nerea Aretxabala**

Herritarra

*“Euskara ondarea izanik, instituzioek finantzatu beharko lukete”*

**Mateo Lafragua**

Hainbat elkartetako kidea

*“Lotsagarria iruditzen zait udalak hartutako jarrera. Euskara ezin da truke-txanpon gisa erabili”*

**Paki Ofizialdegi**

Hainbat elkartetako kidea

*“Asko kostatu zaigu herrian euskara aurrera ateratzea, eta hori kentzen badigute pausu bat egingo dugu atzera”*

**Jose Ramon Rey**

Artzikirolaren sortzailea

*“Aiaraldea hedabidea babestu behar da inguruko kirol eta kultura jarduerak jasotzen lan ona egiten duelako”*

**Inma Bilbao**

Artziniegako Eskolako irakaslea

*“Euskararen beste eremu bat ezagutzeko aukera eman die Aiaraaldea hedabideak ikasleei”*

**Egoitz Vadillo**

Musikaria

*“Mugimendu kultural indartsua du Artziniegak, eta Aiaraaldea hedabidearen beharra dauka”*

**Xabier Santxotena**

Artista

*“Udaletako zizka-mizkak albo batera utzi behar ditugu, eta euskarari lagundu”*

## ELKARTASUN EGUNEKO EGITARAUA

11:00 // **EUSKARAREN ALTXORREN BILA** haur eta gurasoentzat ginkana jolasa, Alde Zaharrean

11:30 // **ARTZIKIROL SAIOA** Amurrioko eta Artziniegako emakume taldeen partida

12:30 // **TALO TAILERRA** Artziniega Museoren eskutik



12:30 // **HERRI KIROLEN ERAKUSTALDIA** Bizindar kirol taldeko kideekin

13:30 // **KANTU-POTEOA** Bleibet abesbatzarekin

14:30 // **PARRILLADA-BAZKARIA** Otsati elkartearen laguntzaz

16:00 // **DANTZA PLAZA** Artziniegako trikiti irakaslearekin

17:00 // **DISKOTXANTXA** haurren ikuskizuna

18:00 // **TXOKOLATE JANA** Hiriska emakume taldearekin



18:30 // **TRAKAMATRAKA** musika-show tailerra, Artziniegako Rock Elkartearen eskutik

19:00 // **BERTSOPOTEOA** Izar Mendiguren eta Manex Agirrerekin, Aiaraaldeko Bertso Eskolaren izenean

20:00 // **KONTZERTUAK** Barau eta Akerbeltzekin

**BIZI ZAREN LEKUAN BIZI ZARELA, NAHI DUGU GERTU EGON ZAITEZEN**

Lanaz, Ikastetxeaz, Anbulatorioaz, Hiriaz.

Gure erronka da Araba osoan zerbitzu eta aukera berberetz goza dezazula.

araba.eus

2018/05/08  
2018/05/23



Hasi baino ez dira egin  
**Otxomaio jaiak**

Iragan ostiralean -maiatzak 4- hasi ziren Otxomaio jaiak Urduñan. Baina jai-egunen erdia baino ez da igaro oraindik, datorren igandean -maiatzak 13- amaituko baitira.

Gaurkoa -maiatzak 8- izango da egun handia urduñarrentzat. Bizilagun askok goizetik gauera arte luzatuko dute festa.

Bihar umeen eguna izango da. Puzgarri eta jolasak egongo dira

goizean, haurrentzako bazkaria baino lehen. Arratsaldean haurrentzako ikuskizuna eta berberena egongo dira.

Osteguna, aldiz, Nagusien eguna izango da. Eurei zuzendutako meza, bazkaria eta antzerki-emanaldia egongo dira hirian, besteak beste.

Ostiralean pilota eta saskibaloia txapelketak egongo dira eta iluntzean koadrilek hartuko

dute protagonismoa, playback txapelketa eta afaria egingo baitituzte.

**Bigarren asteburua**  
Larunbatean herri bazkaria, aurreku eta fandango lehiaketa eta Mr. Pongo Band eta Radio Revolucionen kontzertuak egongo dira, besteak beste. Igan-dean amaituko dira jaiak, Bihotzaren erreketarekin.

## Hogei urteko ibilbidea

bete du  
Txakolin Egunak



Txakolin Egunaren XX. edizioa ospatuko da datorren maiatzaren 20an Amurrión. Ohikoan bezala, eskualdeko upategien ardoak eta tokiko ekoizleek prestatutakoak eskuratzeko aukera egongo da, Juan Urrutia plazan goizeko lehen ordutik egongo den azokan.

Horrez gain, beste hainbat ekintza egongo dira goizean zehar: garrapa txapelketa, kalejirak eta dastaketak, besteak beste. Bazkaltzeko aukera egongo da baita ere, errazioaketa pin-txoak eskainiko baitituzte. Arratsaldean, aldiz, erromeria egongo da, egunari amaitera emateko.

## MUSIKA

**05.09**  
**Asteazkena**  
13:00 LAUDIO  
**RANCHERA EGUNA**  
Tolo taberna

**05.12**  
**Larumbata**  
20:30 LAUDIO  
**TATOMAN**  
Tolo taberna

## ANTZERKIA

**05.13**  
**Igandea**  
17:30 LAUDIO  
"ME MEREZCO ESTO?"  
Laudioalde aretoa

## TAILERRAK

**05.09**  
**Asteazkena**  
16:45 LAUDIO  
**EMAKUME KONTZIENTEAK**  
Kultur etxea

**05.09**  
**Asteazkena**  
17:00 LAUDIO  
**FAMILIEN ELKARLANERAKO TAILER IREKIA**  
Kultur etxea

**05.10**  
**Osteguna**  
17:00 LANTENO  
**ADINDUENTZAKO IKASTAROAK**  
Loidia eta bere aldetak adina dela medio  
Lantenoko eskolak

**05.11**  
**Ostirala**  
18:30 LAUDIO  
**UMEEN SOROSPEN IKASTAROA**  
Kultura etxea

**05.12**  
**Larumbata**  
10:00 AMURRIO  
**AISIALDIA ETA PREBENTZIOA FAMILIAN**  
Refor enpresaldea

**05.14**  
**Astelehena**  
18:30 ARRANKUDIAGA  
**GAZTE ETA HELDUENTZAKO EUSKAL DANTZAK**  
Txondorra gaztetxea

17:00 // Musika girotzea  
18:00 // Herrialde mailako bolo jaurtiketa  
18:30 // Aurreku eta fandango lehiaketa  
22:00 // MR Pongo Banden kontzertua  
23:30 // Radio Revolucionen kontzertua  
01:30 // DJ Isma

**05.12**  
**Larumbata**  
11:00 ARTZINIEGA  
"ARTZINIEGAN EUSKARAZ BIZI NAHI DUGU!"  
**ELKARTASUN JAIALDIA**  
(Ikusi egitaraua 6-7. orrietan)  
Herrian

**05.13**  
**Igandea**  
URDUÑA  
**OTXOMAIO JAIK**  
09:00 // V. Mendi Martxa txikia  
11:00 // Herrialdeko bolo jaurtiketa  
11:00 - 14:00 // Rokodromoa eta tirolina  
11:30 // Saratxoko auzokideei harrera  
12:00 // Meza nagusia eta saratxoarren botoaren berri-berria  
12:00 // Poni eta zaldietan ibiltzeko doaneko aukera haurrentzat  
12:30 // Kalejira erraldol eta buruhandiek  
17:30 // Eskupilota partiduak  
18:00 // Inaki Plaza eta bere ikasleen kontzertua  
20:30 // Musika girotzea  
20:45 // Jaien agur-desfilea  
21:30 // Bihotzaren erreketak

**05.13**  
**Igandea**  
9:15 Laudio  
**HERRI URRATS JAIRA JOATEKO AUTOBUSA**  
Maiatzaren 10era arte dago txartelak erosteko aukera udaletxean  
Institutu aurreko geltokia

**05.13**  
**Igandea**  
9:15 Laudio  
**HERRI URRATS JAIRA JOATEKO AUTOBUSA**  
Maiatzaren 10era arte dago txartelak erosteko aukera udaletxean  
Institutu aurreko geltokia

**INFO +**  
aiaraldea.eus



**MAIATZA**

## Herri Urratsera joateko autobusa antolatuta dute

seaska.eus



Maiatzaren 13an Senperen -Lapurdi- ospatuko den Herri Urrats jaira joateko autobusa antolatuta Laudioko Udalak. Irteera 9:15ean izango da eta 18:30 itzulera. Tiketek 10 euro balioko dute eta ostiralerako arte egongo dira salgai udaletxeko Euskarako arloan.

## Tologorriara ibilaldia antolatu du Matxinkortak

Tologorriara ibilaldia antolatu du Matxinkorta taldeak aukera Ekilortzaren 20rako. 8:30ean abiatuko da autobusa Arrankudiaga plazaetik eta 14:00etan itzuliko da. Antolatzaileek jakinarazi dute bi ibilbide egongo direla: Luzea -18 kilometrokoa- eta laburra -12,8 kilometrokoa-



**Umeen sorospen ikastaroa** ostiralean Laudion

Umeei lehen sorospenak aplikatzen ikasteko tailerra eskainiko du ostiral honetan -maiatzak 11- Kili-kili hazkuntza elkartek. Laudio Kultur Etxean izango da zita 18:30ean. Bea Pacho pediatrak eskainiko du ikastaroa. Sarrera doakoa izango da eta ez da beharrezkoa izango aurretik izena ematea.

# Kartelera



LAUDIOALDE ARETOA  
**Custodia compartida**  
MAIATZAK 11, 12, 13 eta 14,  
OSTIRALA, LARUNBATA, IGANDEA ETA ASTELEHENA (5/4 euro)



LAUDIOALDE ARETOA  
**Lion**  
MAIATZAK 12, LARUNBATA, (3 euro)  
17:30 / 20:00



AMURRIO ANTZOKIA  
**El reino de las ranas**  
MAIATZAK 13, IGANDEA (3,7 euro)  
17:30



AMURRIO ANTZOKIA  
**La casa torcida**  
MAIATZAK 13 eta 14 IGANDEA ETA ASTELEHENA (4,9 / 3,6 euro)  
19:30 / 20:00



LAUDIOKO KULTUR ETXEA  
**Figuras ocultas**  
MAIATZAK 16 ASTEAZKENA (Doan)  
16:45



LAMUZA IKASTETXEA  
**Deklinabideak**  
MAIATZAK 18 OSTIRALA (Doan)  
19:00



AMURRIO ANTZOKIA  
**Leo Da Vinci: Mona Lisa misioa**  
MAIATZAK 20, IGANDEA (3,7 euro)  
17:30



AMURRIO ANTZOKIA  
**Una razón brillante**  
MAIATZAK 20 eta 21 IGANDEA ETA ASTELEHENA (4,9 / 3,6 euro)  
19:30 / 20:00

# BESTEAK

**05.09 Asteazkena**  
URDUÑA  
OTXOMAIO JAIK: UMEEN EGUNA  
11:00-14:30 // Puzgarri parkea eta ginkana Foru plazan  
11:30 // Arrastariako agintarien erroresaldia  
12:00 // Meza  
12:30 // Batibomba eta buruhandiak askatzea  
13:30 // Kantu poteoa eta kale animazioa  
14:30 // Haurrentzako herri bazkaria Gernika plazan  
16:30 // Haurrentzako ikuskizuna  
18:00 // Haurrentzako berbena

**05.09 Asteazkena**  
18:30 LAUDIO  
MARTXOAREN 8KO EGITARAUA BALORATZEKO BILERA  
Erabilera anitzeko udal aretoa

**05.10 Osteguna**  
URDUÑA  
OTXOMAIO JAIK: ADINDUEN EGUNA  
12:30 // Nagusien omenezko meza Andra Mari parrokian  
14:30 // Bazkaria hiriko adineko pertsonentzat  
17:00 // Antzerkia Hamaila taldearekin: "Semillas del pasado"  
18:00 // Mintzodromoa

**05.11 Ostirala**  
URDUÑA  
OTXOMAIO JAIK  
17:00 // Hiruko eta jaurtiketa libre lehiaketa frontoian  
19:00 // Saskibalo partida, 2. maila autonomikoa  
20:30 // VII. Playback Lehiaketa Foru plazan  
22:00 // Koadrilen afaria  
23:30 // Akerbeltz

**05.11 Ostirala**  
20:00 LAUDIO  
DANTZA PLAZA  
Baserritar eta artisauen laguntzarekin  
Aldai plaza

**05.12 Larunbata**  
URDUÑA  
OTXOMAIO JAIK  
09:30 // Zaldikoen harrera  
13:00 // Kantu-kalejira  
15:00 // Herri bazkaria

12 Tatoman  
20:30 Akustikoa (Bizkaia)

19 Bohemian Soul  
20:30 Soul musika

26 Cowboy  
13:00-15:00 Country

## EKAINA

1 Jai ibizarra - Dj Kelmen  
19:30

2 Hotel Ruido  
20:30 Rock bertsoak

9 Ranchera eguna  
13:00-15:00

Charlie Cosh  
20:30 Rock bertsoak

16 Bilbainadak  
13:00-15:00 Bilbainaden taldea

Kike Viguriren bakarrizketa  
22:00

23 Yeray eta Selehe  
20:30 Kontzertu akustikoa

30 Txus Lozano  
20:30

## UZTAILA

2 Zadors  
Reggae-Ska

IRAILEAN BUELTAN GARAI!

15 Nafarroa Kanta  
Talde

Aldai enparantza, LAUDIO  
672 23 50 65  
www.tolobar.com

# Kirola

## “Herentzian jaso dugu bizikletarekiko zaletasuna”



**ASIER CASTILLA PIKAZA (URDUÑA, 2002)** KADETE MAILAKO ARABAKO TXIRRINDULARITZA TXAPELDUN IZENDATU BERRI DUTE. FAMILIATIK DATORKIO BIZIKLETAREKIKO AFIZIOA, BERE AMONA **MARI CARMEN DIAZ DE LEZANAK (URDUÑA, 1943)** URTE ASKO DARAMATZA PEDALEI ERAGITEN.



Testua eta argazkia  
**Aimar Gutierrez Bidarte**

### Nondik datorkizue txirrindularitzarekiko zaletasuna?

**Mari Carmen:** Nire aitak bizikleta tailer bat zeukan eta nik ordu asko sartzen nituen bertan lanean, oso harreman ona genuen elkarren artean. Gerora zikloturista martxetara joaten hasi ginen biak, garai hartan Bilbon eta Gasteizen antolatzen ziren bakarrik, eta noski, entrenatu beharra zegoen.

**Asier:** Nik herentzian jaso dut zaletasuna. Amama, aita, izeko eta osaba... guztiak ibiltzen dira txirrindulan. Ni amamarekin hasi nintzen ibiltzen. Hainbat bidaia egin genituen txikia nintzenean, Santiago Bidea esaterako.

### Nolako izan zen txapelketara jauzia?

**Asier:** Familiari esker beste behin. Nire izeko Urduña bizikleta lasterketan autoan ibili ohi zen asistentzia medikoa eskaintzeko. Ni berarekin joaten nintzen kotxean, asko erakartzen ninduen lasterketako giroak. Handik gutxira Amurrioko bizikleta eskolan eman nuen izena eta geroztik Aiara Txirrindularitza Elkartean nabil, kategoriaz kategoriaz.

**Mari Carmen:** Nik beti esan dut ni zikloturista naizela. Atsegin nuelako ibiltzen nintzen, eta ibiltzen naiz bizikletan. Garai hartan ezin nintzen lasterketetan ibili ez zegoelako emakumeentzako norgehiagokarik.

### Nolako izan zen emakume txirrindularia izatea 50eko hamarkadan?

**Mari Carmen:** Eskandalu bat zen emakume bat bizikleta gainean ikustea! Zalaparta sortu zuen nire afizioak.

Kazetari askok jaso zuten nire berri eta hainbatek Munduko Txapelketan parte hartzeko animatu ninduten. Nik ezin nuen jakin maila horretan lehiatzeko gai nintzen edo ez, nik uste gehiago izan zela kazetariak sortutako iskanbila mediatikoa.

Dena den ezin izan nintzen Munduko Txapelketara aurkeztu, orduko Frankoren Gobernuak eta Falangeko emakume-sailak ez zidatelako utzi. Baimen berezi bat behar genuen emakumeok Espainiatik ateratzeko, soldaduskaren pareko zer edo zer baina gizarte-lanera bideratua.

### Nola aldatu da emakumeen presentzia kirolean?

**Mari Carmen:** Asko hobetu da. Asko pozten nau nik bizi izan ditudan egoeren ostean orain emakumezkoak inongo eragozpenik gabe bizikletaz ibiltzen ikusteak. Lehen gizonezko batek lagunduta ibili behar ginen bizikletan. Nire kasuak federazioan hausnarketa batzuk eragiteko eta egoera aldatzeko balio izan zuen. Oraindik lan asko dago egiteke eta hori agerikoa da, ezberdintasun handiak daude gizonezko eta emakumezko txirrindulariei ematen zaizkien baliabideen artean, baina aurre-erapausoak nabariak dira.

### Eta txirrindularitza orokorrean nola aldatu dela uste duzu?

**Asier:** Oraindik harritu egiten naiz amamaren argazki zaharrak ikusten ditudanean; arropa, bizikletak... askoz sinpleagoak ziren lehen, gauzak asko teknifikatu dira. Bizikletaz ibiltzeko modua ere asko aldatu da. Orain dena monitorizatuta dago eta lasterketetako estrategiek gehiago dute zientziatik kirolariaren sentsazioetatik baino. Kaskoa ere gehiago erabiltzen dugu orain-barreak.

### Nolako entrenamendu saioak egiten dituzue?

**Asier:** Nik Aiara Txirrindularitza Elkarteko lagun batzuekin entrenatzen dut. Denboraldiaren eta hurrengo lasterketen arabera moldatzen ditugu entrenamendu saioak baina orokorrean astean lauzpabost aldiz ateratzen gara errepidera eta 50 kilometro inguruko ibilbideak osatzen ditugu. Aiaraldea oso leku ona da entrenatzeko.

**Mari Carmen:** Ni egunero ateratzen naiz bizikletaz ibiltzera, ez ditut hainbeste kilometro egiten. Urduña ingurutik ibili ohi naiz eta batzuetan Gasteizeraino joaten naiz.

### Arabako txapelkun bezala gailendu zara duela astebate, nolako izan da esperientzia?

**Asier:** Oso froga gogorra izan zen. Oso kirolari indartsuek parte hartu zuten bertan, bereziki esprintean onak ziren txirrindulariak. Banekien hor ez nuela aukera askorik izango beraz aste batzuk igaro nituen lasterketa ondo prestatzen eta indarrak non jarri erabakitzen. Igoeretan ikusi nuen nire burua indartsuen eta azkenean ahaleginak merezi izan du. Oso pozik nago emaitzarekin.

**Mari Carmen:** Guk oso harro jaso dugu albistea. Asko gustatzen zaigu gure iloba irabazten ikustea eta berarekin disfrutatzeke aukera izatea.

### Familia txirrindularia izatea laguntza edo presioa da?

**Asier:** Laguntza ikaragarria, zalantzarik gabe. Familiako kideak zikloturistak dira oro har eta beti erakutsi didate bizikleta ondo pasatzeko zer edo zer dela. Lehia eta txapelketa guztien gainetik norberaren gozamina dagoela.

**Mari Carmen:** Berak ere asko eskaini digu etxekoei. Niretzako plazera da iloba lehiatzen ikustera joatea. Ibilbide berriak egin eta txirrindulari are gogo gehiagorekin heltzeko aukera izan dut berari esker.

## Nagusi taberna, gastronomia eta kultura eskaintza oparoa

Mota askotako ogitarteko eta hanburgesak zerbitzatzen dituzte, barazkijaleentzako hainbat aukerekin batera. Horrez gain, larunbatero antolatzen dituzte kontzertuak eta erakusketa bat inauguratzen dute hilero.

Otsailean ireki zuten Amurrioko Nagusi taberna, hainbat hilabetez itxita egon ostean. Establezimenduaren kudeatzaile berriek helburu argi bat dute buruan: herriko edota eskualdeko beste tabernetan eskaintzen ez den hori eskaintzea. Eta lortu dute, oparoa bezain berezia baita kafetegiak eskaintzen duen zerbitzu sorta.

### “Fast food” berezia

Gastronomia da Nagusi tabernaren bereizgarrietako bat. “Janari azkarra” eskaintzen dute ostiral eta larunbatetan, baina ez betikoa. Ohiko ogitartekoak dituzte, baina baita bestelako janariak ere, arrainezko hanburgesa kasu. Horrez gain, barazkijaleentzako eskaintza oparoa dute baita ere. Hala ere, eskaintza berezia izateak ez du esan nahi garestiagoa denik. Kafeak euro bat baino ez du balio, eta gosariak -kafea eta pintxoak-, aldiz, bi euro.

### Kontzertuak larunbatero

Eskaintza kultural oparoa topatu daiteke Nagusi tabernan. Larunbatero antolatzen dituzte kontzertuak, eta hilabetero ostiral bat baliatzen dute karaokea egiteko.

### Erakusketak, hilero bana

Horrez gain, tabernan uneoro dago erakusketa bat jarrita. Erakusketa bana antolatzen dute hilero. Iragan hilabetean Irune Izer artista amurriarraren lanak egon ziren ikusgai.

Orain, aldiz, Janire Usategui argazkilari amurriarraren irudiak daude, eta datorren hilabetean beste artista baten lanak egongo dira.

### Hurrengo kontzertuak

Maiatza eta ekainerako egitarau indartsua prestatu dute, udari behar bezala hasiera emateko. Larunbat honetan -maiatzak 12- Iñigo Garrido musikariak joko du tabernan. Hilaren 19an Lee Juniorren txanda izango da. 25ean karaokea egingo dute eta 26an Edu Bastek giro-tuko du iluntzea.

Ekaineko lehen larunbatean, aldiz, Gorka Nastek eskainiko du kontzertua. Mikel Bizarrek joko du bigarren asteburuan, eta ekainaren 23an Ramon March egongo da tabernan, “Perbertsioak” eskaintzen. Queen, REM, The Beatles eta beste hainbat talderekin abestiak bertsioneatuko ditu artistak, bertaritzen direnen gozamenarako.



Erakusketak eta beste hainbat motatako kultur ekintzak antolatzen dituzte tabernan. Aiaraldea.eus

**CAFETERIA** Intxaurdi 2C AMURRIO

**NAGUSI** MUSIKA ZUZENEAN

**MAIATZA**

**LARUNBATA 5 CHARLY COSH**

**LARUNBATA 12 IÑIGO GARRIDO**

**LARUNBATA 19 LEE JUNIOR**

**OSTIRALA 25 KARAOKE**

**LARUNBATA 26 EDU BASTE**

**EKAINA**

**LARUNBATA 2 GORKA NASTE**

**LARUNBATA 9 MIKEL BIZAR**

**LARUNBATA 16 KARAOKE**

**LARUNBATA 23 RAMON MARCH**

**PERVERSIONES**

Zuzenekoak 20:30etan hasiko dira



€1eko DESKONTUA AFARIETAN

# Kirola

TXIRRINDULARITZA

## Garaipen ugari erdietsi dituzte aiaraldearrek



Junior kategoriako lasterketa egon zen Amurrion. Aiara Txirrindulari Elkarte

Testua  
**Aitor Aspuru Saez**

Txirrindularitzak ehunka kirolari mugitu ditu azken asteetan Aiaraaldean. Apirilaren 28an junior kategoriako lasterketa egon zen Amurrion, 29an kadeteak lehiatu ziren Arespalditzan eta maiatzaren 1ean San Jose auzoan, Amurrion, erabaki zen Arabako Txapelketa. Urduñan ere gazteen 46. Klasikoa jokatu zen.

Asier Castilla Pikazak eskuratu du Arabako txapela kadeteen artean, asteburu gogor baten ostean. Apirilaren 28an podiumera igo zen Arespalditzan, 2. postuan. Bakarrik irabazleak, Hodei Muriacik alegia, gainditu zuen.

Bere taldeak, Aiara Txirrindularitza Elkarteak, garaipena erdietsi zuen ere Arespalditzan taldeko sailkapenean. Dena den, unelazak ere igaro dituzte. Ihesaldian Mikel Berazak eta Eder Caminok erorketa izan zuten. Berazaren istripuak itxura txarra zeukan, baina kaskoari esker, ezer ezean geratu zen zauria. Ez da lehenengo aldia Mikel Berazarentzat, ez behar arriskutsuei dagokienez.

**Luisa Ibarrola 2. Burgosen**

Luisa Ibarrolak aste ikaragarriak bete izan ditu apirilean.

Hasteko, Caspeko errepideko lasterketan -Espainiako Txapelketa-rako puntuagarria- irabazi zuen gazte kategorian hilabetearen erdialdean. Duela 10 bat egun Arnedoko Mountain Bike proban gailendu zen.

Apirileko azken asteburuan Burgosko Biran parte hartu zuen. Errepideko lasterketa 3 etapek osatu zuten. Bigarren hitzorduan, Villarcayon, Luisak lortu zuen garaipena sprintean (Caspén bezala). Poza de Salen izan zen azken proba eta saratxoarrak podiumeko 2. postua hartu zuen, Mireia Trias txapeldunaren atzetik. Bost segundo eskasera geratu zen Luisa sailkapen nagusian.

**Urduñako 46. Klasikoa**

Txirrindulari gazteek beste hitzordu bat izan zuten Urduñan Lasterketa Klasikoaren 46. edizioan. Jon Barrenetxeak irabazi zuen nagusitasunez, baina alderik nabarmenena pelotoian zegoen. Izan ere, gazteen artean kirolari nagusi bat zegoen; Alberto Escobar. Gizonetzkoa 2. izan zen 1985eko proban eta berriro parte hartu zuen lehiatu gabe; txirrindularitza egoituan, hain zuzen. Saiatu Fundazioako kideak Bizkaiko Federazioaren baimena eskuratu zuen bere prestakuntza hobetzeko.

**#arespalditzatrail**

## ARESPALDITZA TRAIL LASTERKETA

INFORMAZIO GEHIAGO [arespalditzatrail](#)

ARESPALDITZAKO AZOKA-LEKUAN

**16:00 h. II. MENDI IRTEERA**  
Iturri Arespalditzako Jaitza-Labaila

8 km

**16:45 h. II. TRAIL LASTERKETA**

15 km

**2018KO MAIATZAK 19**

ANTOLATZAILEAK

ANTOLATZAILEAK

GAROBEL MENDI TALDEA

FUTBITOIA

## Aste honetan bukatuko da Ugarteko torneoan izena emateko epea

Testua  
**Aitor Aspuru Saez**

Ugarteko futbito txapelketak ibilbide luzea zein arrakastatsua egin du Laudion, auzoko jaiak girotzeko -eta noizean behin berotzeko ere-, balio izan baitu. Lehiaketaren edizio berria ia hastear dago. Bultzatzaileak azaldu dute ostira-lean -maiatzak 11- itxiko dutela izena emateko epea. Parte-hartzaileak 18 urtetik gorakoak izan beharko dira. Interesdunek 619

569 093 telefono zenbakira deitu behar dute, euren taldeak parte har dezan. Inskripzioak 140 euro balio du.

Asteburuan bertan bilera dute dute arauak, ordutegiak, sariak eta planteamendu osoa lantzeko taldeekin, eta hurrengo astean ekingo diote jokatzeari. 10 talde elkartu nahi dituzte gutxienez, taldekako fasea gauzatzeko eta, horren ostean, kanporaketak egiteko. Ohiturari jarraiki, Ugarteko Jaien asteburuan jokatu dute finala.

## Euskal Herria-Palestina borrokaldia Bañueta kiroldegian

Iaz Euskal Herria-Eskozia borrokaldia hartu ostean, maiatzaren 26an estaturik gabeko bi nazio elkartuko ditu berriro Amurriok; Euskal Herria eta Palestina. 18:00etan abiatuko dira borrokak eta eskualdeko hainbat kirolari igoko dira ringera. Uxue Sarraga Manterola, Julen Aldama, Irene M. eta Ibai Ruiz K-1 diziplinan arituko dira. Aratz Garmendiak, ordea, MMA praktikatuko du. Bederatzi borroka izango dira guztira eta sarrerak 15 euro balioko du aurretik eta 18 egun berean.

**artziniegan euskaraz bizi nahi dugu!**

**AIA RAL DEA GAUR**

**EUSKARAZKO HEDABIDEAK BABESTU ETA SUSTATU**

## ELKARTASUN JAIA

**MAIATZAK 12, LARUNBATA ARTZINIEGAko FRONTOIAN**

<p><b>11:00etan</b></p> <p><b>EUSKARAREN ALTXORREN BILA</b> haur eta gurasoentzako ginkana jolasa Aida Zaharrean</p>	<p><b>11:30ean</b></p> <p><b>ARTZIKIROL SAIOA</b> Amurrio eta Artziniegako emakume taldeak</p>	<p><b>TALO TAILERRA</b> Artziniega Museoaren eskutik</p>
<p><b>12:30ean</b></p> <p><b>HERRI KIROL ENERJIA ERAKUSTALDIA</b> Bizindar kirol taldeko kideak</p>	<p><b>13:30ean</b></p> <p><b>KANTU-POTEOA</b> Bleibet abesbatzako kideekin</p>	<p><b>12:30ean</b></p> <p><b>DANTZA PLAZA</b> Txato, Irkitrilariarekin</p>
<p><b>17:00etan</b></p> <p><b>DISKOTXANTXA</b> haurrentzako dantza ikuskizuna</p>	<p><b>14:30ean</b></p> <p><b>PARRILLADA-BAZKARIA</b> Otsati elkartearen eskutik</p>	<p><b>16:00etan</b></p> <p><b>TRAKAMATRAKA</b> musika-show-tallerra Artziniegako Rock Elkartearen eskutik</p>
<p><b>18:00ean</b></p> <p><b>TXOKOLATE JANA</b> HIRISKA taldearen eskutik</p>	<p><b>19:00etan</b></p> <p><b>BERTSO-POTEOA</b> Izar Mendiguren/Manex Agirre</p>	<p><b>18:30ean</b></p> <p><b>20:00etatik aurrera</b></p> <p><b>Akerbeltz</b> KONTZERTUA eta ERROMERIA BARAU eta AKERBELTZ</p>

**ANTOLATZAILEA ARTZINIEGAko BABES TALDEA**

# Herriko plaza



## Iñaki

Beste bat gehiago atzean eta askoz gehiago aurretik! Ospatu eta gozatu eguna aita!

**Maider**



## Samu

Zorionak Samuuuuuuu! Jarraitu beti bezain langile eta jator izaten!

**Lagun batzuk**



## Josu

Zorionak!!!!!! Betaurrekoak buuruan eta ibili munduan! Urte askotarako!

**Pili eta Mili**



## Leire

Zorionak Leire! 24 urte jada, oso ondo pasa!

**Kafelintxi komandoa**



## \_BIDALI ZUREA!

Idatzi zure mezua eta bidali argazkia [agurrak@aiaraldea.eus](mailto:agurrak@aiaraldea.eus) helbidera maiatzaren 18a baino lehen.

## Denborapasak

	IZENA	Irakasleko dago	Iburburua	Lapurdiako herria
	Dirudun	Oidarra, jazarpena	Kanpo, landa	
	Herria			
	Zintzoak		Kontzertante bikotza	
			Arluaren erdian	
DEITURA	Labore moia	Esakoa		
Ez estu, nasal	Lausengu, losintza	Latekin jarduten du		
		Zapata, oinetako		Xumoa, apala
		Oinuzak		
Neroak			Urrea	
1153			Harrapa ezan!	
		Indioa		Kontzertante
		Kontzertante bostia		x 3 = Barrea
Heptareta, labur-labur		Teatro		
Lohuti, baztertu		Utiki!		
			Galderetan	
			Dokai biribila	
Tenisi, zut		Zer lekutara?		

♦ Triatolari laudioarra

### ERRAZA

7	3	6	9	5		
6	5	8				
9			2	8		
	3	4				
4	2	7		5	3	
5			2	7	4	8
	7	4				
9	5	6	3	8		
		8	5	2		

### ZAILA

2	3			7		
4	8				9	
			2	3		
6		9	7	5		
9					5	4
						1
	6		3	5	4	7
3	4	8		1		6

### DENBORAPASEN SOLUZIOAK

Sudoku, hitz-gurutzatu eta hitz gezidunen soluzioak web-gunean ikusgai: <http://www.aiaraldea.eus/users/denborapasak>



## EKAINAK 9

### AIARALDEKO I.TOPAKETA

# FE-MINIS-TAK

FAKTORIAN  
SOLASALDI KOLEKTIBOAK  
HITZALDIA  
BAZKARIA  
TAILERRAK  
ERAKUSKETAK  
KONTZERTUAK



## Zozketa

### APARTAMENTOS CIUDAD DE ORDUÑAN 2 pertsonentzako gau bateko egonaldia





Parte hartu [www.aiaraldea.eus](http://www.aiaraldea.eus) web atariko asteroko zozketetan.

# Aiaraldea txiki


## Ba dok Hamairu

Bilatu bi irudi hauen artean dauden aldeak. Hamahiru dira guztira.




## Oilategia

Hona hemen lau oilo. Batek arrautza zuria errun du. Beste arrautza trabatuta gelditu da eta laugarrenari hautsi eta bakoitza bere arrautzari.



## Emaitzak



Ba dok Hamairu



Oilategia



Itzala



Sudokua

U	!	H	R
R	!	H	U
H	!	R	U

Bete itzazu kuki zurik, HIRU hitzo ostzen diren gogortu hitz bakoitzak behin (H, !, R eta U). Gogortu hitz bakoitzak behin gogortu behar duela zutabe, lerro eta areo bakoitzeko.

N

te batek, gorritzta. Hirugarrenaren gin zaio hoditik ateratzean. Lotu oilo



## Itzala

Lupak erakusten duen zomorrotxo kakati hori zer ote da? Mega birus bat? Zorri mutante bat? Molekula erradioaktibo bat? Edozer dela ere, itzal zuzen bakarra dauka, zein da?



## Sudokua

Bete itzazu lauki zuriak, **HIRU** hitza osatzen duten hizkiez (H, I, R eta U). Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.

U		H	
	H	i	
		R	
i		U	


3



# Kontra

## Mundutik Aiaraldera

Maria Victoria Rodriguez



### Luis Vera Castillo

JAIOTERRIA  
**TRUJILLO -PERU- (1966)**

BIZILEKUA  
**LAUDIO**

BIDAIAREN XEDEA  
**LANA**

### PERU



#### DESKRIBAPENA

Inperio Inkaren epizentroa izan zen Peru Espainiak lurraldea konkistatu zuen arte. 1821. urtean aldarrikatu zen herrialdearen independentzia, baina aurretik hainbat matxinada egon ziren indar kolonialen aurka, Tupac Amaru II-arena da altxamendu ezagunena. Egun, 24 departamentuk osatzen dute herrialdea, Callao probintziarekin batera.

#### AZALERA

1 285 216 kilometro koadro.

#### BIZTANLEAK

31,8 milioi biztanle

#### HIZKUNTZA

Gaztelera da hizkuntza nagusia, baina kitxua ere oso zabaldua dago.

## “Hemen sekulako ordena duzue! Perun egunero eta gauero dago zarata”

**Perutik Laudiora, itsaso bat baino gehiago dago.**

Bai, duela 11 urte inguru etorri nintzen Laudiora, 40 urterekin. Etorkizun hobea nahi nuelako egin nuen alde. Aldaketa handia izan zen, ezin da konparatu hango eta hemengo egoera.

Perun iturgina nintzen, baina nahiago dut oraingo lana, sukaldaria naiz. Ahal izanez gero, hemen geratu nahiko nuke, ohitu egin bainaz.

**Herritik urrun, nola bizi da herrimina?**

Mugikorren bidez edota bideo-deiekin komunikatzen naiz gaur egun. Urtarrilean joango naiz Perura berriro, 2010ean joan nintzen lehenbizikoz eta azkenekoz. Ahizpa-neba asko gara, hamaika! Perun ohikoa da jendeak mundura alde egitea. Lehenbizi, ordea, Limara joatea da ohikoena; herrixketatik hirira. Hiriburuan, baina, gaizki be-

giratzen gaituzte, beste klase sozial batekoak bagina bezala.

**Euskal Herrira etortzean, zerk harritu zintuen gehien?**

Gogoan dut lehen egunetan oso itsusia iruditzen zitzaidala hau: ez nituen sekula tximistak ezta mendiak ikusi aurretik!

**Harremanak egiteko moduetan ere bada alderik?**

Liman urte batzuk eman nituen, eta han egunez zein gauzez egoten da jendea kalean. Denak, tabernak... zabalik egoten dira goizaldeko lauretan ere.

Hemen, iluntzeko zortzietatik aurrera apenas dago zaratarik. Sekulako ordena duzue. Perun egunero eta gauero zalaparta handia dago!

**Sukaldaria zara. Han eta hemen, elikagaiak prestatzeko moduak ez dira berdinak...**

Ez. Perun patata horiak, mo-

reak... daude. Askoz garbiago jaten duzue, gainera. Guk espezie pila botatzen dizkiogu plater orori. Patata tortillak eta paelak asko harritu ninduten, asko gustatu zitzaizkidan.

**Peruko zein jaki hautatuko zenuke?**

Perutik cevichea botatzen dut faltan; gordin jaten den arraina da, limoiarekin ondua. Boniatua eta letxugarekin zerbitzatu da.

**Kultura edo ohiturei dagokienez, zer nabarmenduko zenuke zure herrialdetik?**

Musika zeharo ezberdina da, tokian toki. Limakoak oso harroak dira, herrietatik gatozenak gaizki begiratzen gaituzte. Herrixketan cumbia edo chicha entzuten da, baina Liman ezin dute jasan.

Inauterietan, adibidez, zuhaitz bat moztea ohitura da

Peru osoan. Gau osoan zehar dantzan ibiltzen gara haren inguruan. Biharamunean zuhaitza mozteari ekiten zaio herriarren artean, eta botatzea lortzen duena izaten da hurrengo urtean landatzen duena!

Gabonetan, berriz, umeak dira nagusi; opariak ematen zaizkie gauerdian. Hori bai, han ez ditugu herriko jaiak ospatzen! Hona etorri nintzenean zur eta lur geratu nintzen gazteek jantzi bereziak zituztelako, koadriletakoak!

**Aiaraldeaan peruar ugari zaudete.**

Amurrio da peruar gehien dituen herria, Urduñan eta Laudion baino gehiago. Ni Laudion bizitzera ohitu naiz; oso murgilduta nago hemengo bizitzan. Quechuaz ez dugu hitz egiten, gaztelera eta ingelesa ikasi baititugu eskolan. Ustez, gure jatorrizko hizkuntza da, baina gure herrixkan ez dugu ikasi.

EGUNKARI HAU LAGUNTZEN DUTE:

